

Hitzatzea

Ipupomamua: telebista saio bat baino gehiago

GORRINGO TALDEA

2009.eko urriaren 24an hasi zen Ipupomamua telebista saioa ETB1-n. Handik gerora hamaika saiok jarraitu diote lehenengo horri, eta hori oso berri pozgarria da. Bazen garaia gure haur eta gazteek telebista publikoan literatur txoko bat izateko. Espero dezagun programa honek jarraipena eta etorkizun oparoa izatea. Nahi duenak eskuragarri ditu programa guztiak EITB-ko webgunean: www.eitb.com (ETB3).



Ipupomamua telebista saioaz aritzeko ezinbestekoa da Ipupomamua proiektuaren hastapenetara jotzea. Hasiera batean behintzat, ez baita telebistarako sortutako ideia. Berez, ipuinak entzun, sortu, marraztu eta antzetzeko espazio fisiko bat da Ipupomamua.

Eraikin hori non eta noizko egin, ordea, oraindik aztertzen ari dira eta bien bitartean, eta Gipuzkoako Kutzaren eta Gipuzkoako Diputazioaren babesari esker, telebistarako saio bihurtu da Gorringo taldearen ideia.



Telebista saioa astero

Urrian hasi zen Ipupomamua ETBn emititzen, ETB3n eta ETB1n. Helburua, Ipupomamua proiektuaren estiloa aurkeztea. Eta noski, haur eta gazte literaturaz gozatzeko tarte bat eskaintzea. Horixe baita Ipupomamua: haur eta gazte literaturatik abiatuta, sormenarekin gozatzeko espazio bat.


Saio bakoitzaren abiapuntua gure herri eta hirietako liburutegietan aurki ditzakegun liburuak dira. Hau da, nobedadeak zein liburu klasikoak, euskarazkoak zein erdarazkoak, eleberriak, ipuinak nahiz album ilustratuak. Liburu horiek herri liburutegietako bibliotekariak aurkezten dizkigute: liburutegietako apaletan dauden liburuen aurkezpen kualifikatua egiten digute, eta pantailan liburu horien datuak azaltzen ditugu interesa duenak zein datuekin bilatu jakiteko. Liburu horiek, ez guztiak, saioan zehar aurkezten ditugu: irakurraldien bidez, ilustrazioak aztertuz edo haietan oinarrituriko film zatiak eskainiz.

Gai edo protagonista jakin bat aukeratzen

dugu saioro eta hark bateratzen ditu programan aurkezten ditugun liburuak. Adibidez, piztiak ageri diren liburuekin egin genuen lehen saioa, Maurice Sendak idazlearen *Piztiak bizi diren lekuan* liburu ezaguna abiapuntu hartuta. Halaber, idazle bat protagonista duten saioak ere egin ditugu: esaterako, Hans Christian Andersen idazlearen mundura gerturatzeko saio bat egin genuen urte hasieran.

Durangoko Azokan edo Marrazioak ilustratzaileen topaketan saio bereziak egin ditugu: 2009ko nobedadez eta ilustratzaileen lanaz hitz egiteko baliatu baitugu.

Ekitaldi puntual horiek gorabehera, normalean, gaiarekin edo liburu horiekin zerikusia duten kultur edo aisialdi tokietan grabatzen ditugu saioak, eta bertako aditu bati elkarrizketa egiten diogu. Anderseni buruzko saioan adibidez, Ormaiztegiko (Gipuzkoa) Zumalakarregi Museoara jo genuen, idazlearen garaiko aldia hartzen baitu (XIX. mendearen bigarren erdia) eta gainera, besteak beste, idazlearen Berunezko Soldadua



personaiaren antzeko berunezko soldadu gehiago badirelako han.

Elkarrizketen helburua, gure kuriositateaz mintzatzea da; solasaldi atsegin bat edukitzea. Eta ez literaturaz halabeharrez; literaturari bide ematen dioten toki, aitzakia eta gertaerei buruz batik bat. Izan ere, saioaren helburua eta tonua ez da ohiko literatur saioena; ez dugu literatur lanak kritikatzeko edo aztertze bilatzen. Gure asmoa literatur lanak aurkeztea eta haiek iradokitzen duten giroa birsortzea baita. Nolabait, aldiro istorio berri bat sortzea. Eta irakurle bakoitzak liburuaren istorioen bere bertsio propioa egiten duen bezala, saioaren istorio berri bat sortzen dugu irakurri eta ikusi ditugun liburuarekin. Gure interpretazioa, azken finean.

Saioaren tonua ludikoa eta lasaia izan dadin ahalegitzen gara, familian ikusteko saio bat egitea. Ez da, beraz, haurrentzako saio bat; irakurtzeko ohitura duten haur, heldu eta interesatu guztiei zuzendu nahi diegu saioa. Hala, haurrak ez ezik, helduak ere agertzen dira gure programan, bai

liburuak irakurtzen, bai liburuari buruzko azalpenak edo iritziak ematen.

Azterketa adituaren eskutik

Liburuaren interpretazioa egitea izan arren Ippomamuaaren egiteko nagusia, liburuaren azterketak edota istorioen analisiak badu bere tokia, ondoko adituaren eskutik: Asun Agiriano Arrasateko haur liburutegiko bibliotekaria, Manu Muniategiandikoetxea margolaria eta Andres Gostin HUEZIKO narratiba irakaslea.

Agiriano da gure bibliotekari 'partikularra'. Askotan pantaila aurrean agertzen da, aurrez esan bezala, saioan agertzen diren liburuak aurkezten. Baina beste askotan, pantailan agertu ez arren, berak emandako aholkuekin erabakitzen ditugu zein liburu erabili. Gainera, zein argitaletxe, idazle edo ilustratzailearen pista jarraitu gomendatu ohi digu.

Muniategiandikoetxeak, berriz, saioaren liburu bateko ilustrazioak aztertzen ditu. Literatura ez baita liburuaren kabitzen; edota hobeki esanda,



literatura ez baita soilik hitza. Hala, liburu ilustratuei protagonismo handia ematen diegu, haur literaturan maiz erabiltzen baita ilustrazioa istorioak kontatzeko. Gainera, irudien bitartez, errazagoa da atzerriko literaturara gerturatzea eta ondorioz, ugaritu egiten da irakur/ikus ditzakegun istorioen kopurua eta kalitatea. Liburu ilustratuak eskuetan hartu eta azaletik hasita egiten du margolariak ilustrazioen azterketa: zein teknika erabili den, zein kolore eta zergatik, zer erreferentzia dauzkaten... Horrekin batera, inprimatuta ikusten dugun irudi hori nola egin duen ere ikusteko erakustaldi praktikoa egin izan du pantailaren aurrean.

Andres Gostinek hainbat filmen irudien gainean, filmei buruzko azalpenak ematen ditu. Saioan azaldu ditugun liburuetatik zinemarako eginiko bertsioak komentatzen ditu, eta liburutik pantaila handira eramatean nolako moldaketa egin duten aztertzen du. Askotan, moldaketa bat baino gehiagoren berri ematen du. Era berean, filmen zuzendariari nahiz erabilitako teknikari buruzko azalpenak ematen ditu. Narratiba irakaslea izanik, eta saioan landu ditugun liburuen idazleei

buruzko jakintza izanik, idazleen ekarpenaz ere mintzo ohi da.

Bukatzeko, ipuin kontaketak


















Gorringo taldeko aktore eta ipuin kontalarietako urteak daramatzate herriz herri ipuin kontaketa antzetzuek eskaintzen. Hala, Ipupomamua saioan ere maiz egiten dute kontaketa, Gorringorekin egin bezala, Ixabel Agirresarobek eta Egoitz Lasak. Horiekin batera kontalari eta aktore ezagun gehiagok kontaktu dituzte hainbat ipuin (Joxan Ormazabalek, Pello Añorgak, Ane Aseginolazak...). Kontatzea (eta entzutea) merezi duten istorioak aukeratzen ditugu, batzuetan liburuetan idatzi bezala kontatzeko, baina gehienetan kontalarietako euren propio prestatutako kontaketak dira. Kontaketa egin bitartean istorioa ilustratzen duten irudiak eskaitzen ditugu pantailan. Tarte honek ematen dio amaiera programari, baina beharbada, hortik aurrera has daiteke hainbat etxe, ikasgela eta liburutegitan beste bidaia bat da: ikus-entzule izan direnek entzun duten ipuina ahotan hartu eta kontatzen jarraitzen badute, behinik behin.




Behinola

Galtzagorri Elkarte

Haur eta Gazte Literatura Aldizkaria





Egin zaitez Galtzagorri Elkarteko bazkide

I. Jarraian aurkezten dugun fitxa bete eta ordainketa-agiriarekin batera, gure helbidera bidali:

Galtzagorri Elkartea

Zemoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943471487

behinola@galtzagorri.org — www.galtzagorri.org

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....Posta-kodea:.....

Telefonoa:.....faxa:.....

e-maila:.....

Ogjbidea:..... lantokia:.....

2. Urteko bazkide-kuotaren ordainketa egin (40 €)

Galtzagorri Elkartearen kontu-korrontean dirua sartuz:

CAJA LABORAL – EUSKADIKO KUTXA

sukurtsala: Loyola 15 (20.014 Donostia)

kontu-zenbakia: 3035 0242 6 8 242 0 00247 1

Galtzagorri Elkarteko bazkide guztiak doan jasoko dituzte
Elkartearen argitalpen guztiak.

Behinola aldizkariaren

argitalpena 2010eko maiatzean egin zen Iruñeko
Ona Industria Gráfica inprimategian.

